

JARDUEREN OROITZA-TXOSTENA



2018

- 1  BEKAK ETA IKERKETAREN SUSTAPENA
- 2  ARGITALPENAK
- 3  Hermes : PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 4  GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA
- 5  GAZTERIA
- 6  EUSKARA
- 7  EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA
- 8  EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 9  SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA
- 10  BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK
- 11  ZABALKUNDEA | KOMUNIKAZIOA | INFORMATIKA
- 12  IZANDAKO EMAITZEN BALORAZIOA

**Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945**

Orain dela zortzi urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharra egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

**Vicente Egia Sagardui euskal komandantearen inguruko ikerlana, omenezko hainbat ekitaldi antolatzeko, haren heriotzaren 80. urteurrena dela eta.**

Urtemuga hori ospatzeko antolatuko diren jardueren esparruan.

**Casilda Iturrizar andrearen inguruko ikerlana, haren aldeko hainbat omenezko ekitaldi antolatzeko.**

Casilda Iturrizarren jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko antolatuko diren jardueren esparruan.

**Euskadiko Agiritegi Historikoarekin elkarlanean egindako ikerlana.**

Aholkularitza eta zuzendaritza Gerraz Zibilari eta Prentsari buruzko hitzaldi-zikloa eta erakusketa antolatzeko.

2.1. «Arabako EAJ-PNV alderdiaren historia Gerra Zibilean. Uztailaren 18tik Azazetako mendateko erailketetara» liburuaren aurkezpena

(Liburua otsailaren 22an aurkeztu zen, Gasteizko Luis Ajuria aretoan (Álava jenerala 7)).

«Arabako EAJ-PNV alderdiaren historia Gerra Zibilean. Uztailaren 18tik Azazetako mendateko erailketetara» dugu Roman Berriozabal ikertzaile eta euskal abertzaletasunari buruzko argitalpen batzuen egilearen azken liburuaren izenburua.



Sabino Arana Fundazioak argitaratutako lan honek EAJ-PNV alderdiaren historia jorratzen du, hain zuzen ere, alderdi politiko horren Arabako antolakuntzak garai latz batean nozitu zuena, 1936ko matxinada militarra eta horren ondoko gerra erdiragarri eta zapalkuntza ankerrak iraun bitartean.

Berriozabalen lanak, gainera, sakontasunez eta zorroztasunez ikertu ditu gizon ondratu baten bizitzaren azken hilabeteak. Izan ere, José Luis Abaitua Pérez, militante abertzalea izateagatik atxilotu eta kartzelaratu zuten, eta gezurretan askatu ostean, basakeriaz erail zuten Azazetako mendatean 1937ko apirilaren 1ean, harekin gatibu egondako beste hamabost lagunekin batera, hainbat ideologiatakoak, besteak beste, PSOE, Partido Republicano Radical Socialista (PRRS), Unión Republicana (UR), CNT, UGT eta PCE alderdietakoak. Hildakoen artean, Izquierda Republicana (IR) alderdiko Gasteizko alkate Teodoro González de Zarate zegoen.

2.2. DEIA egunkarian argitaratutako artikulua. Euskadiko historia eta antropologiari buruxko kolaborazioak Deia egunkariarentzat

2018ko ekitaldian, Sabino Aranak DEIA egunkariaren “*Historias de los vascos*” saileko kolaborazioak koordinatu ditu. Sail horretan, aldez edo moldez Euskadiko historian eragin nabarmen izan duten gai historiko eta antropologikoak aletzen dira.

2018an, ondoko kolaborazioak izan ditu Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak: **Jabier Aspuru, Balbino García de Albizu, Edu Araujo, Andres Urrutia, Begoña Villanueva, Óscar Álvarez Gila, Joseba Lopezortega, Amaia Mujika, Joseba Agirreazkuenaga, Mikel Magunazelaia, Eider de Dios, Arturo Taracena, Adrián Busto, Iñaki Zabaleta, Aitor Miñambres, Aritz Ipiña, Txema Montero, Jon Artabe, Pello Fernández Oyaregui, Artuto Aldecoa, José M^a Gorordo, Josean Beloqui, Diego Garate, Javier González de Durana, Fernando Mikelarena, Eugenio Ibarzabal, Luis Bilbao Larrondo, Martín Rodrigo y Alharilla, Igor barrenetxea, Jon Irazabal, Luis Javier Pérez, Anton Ugarte, Iñigo Camino, Gregorio Arrien eta Karmelo Vivanco.**

2018ko ekitaldian, **hermes** aldizkariaren 3 ale argitaratu ditugu, hain zuzen ere, 58, 59 eta 60. zenbakiak.

58. zenbakiko gai nagusia hauxe izan da: “Ramon de la Sota eta haren gobernu egitasmo abertzalea, ehun urte geroago (1917-1927)”. 59. zenbakiak “Euskal kulturaren memoria” jorratu du. Eta 60. zenbakiak, berriz, “Euskararen erabileraren gakoak” hartu ditu hizpide.

✍ 58. zenbakia

Euskal lurralde bateko erakunde batean, Bizkaiko Aldundian, hain zuzen ere, gobernu abertzale batek lehen aldiz agindu zuenetik mendeurrena bete zela eta, Sabino Arana Fundazioak mintegi bat antolatu zuen iazko abenduan, euskal abertzaletasunak azken 100 urteotan lortu dituenak aztertzeko xedez.



Mintegi horretako hizlari nagusiek jardunaldian esandakoak HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren 58. Zenbakian bildu dira: “1917. Euskal abertzaletasuna eta erakunde-lidergoa”. Hala, Gotzon Loberak –itzultzailea eta Zuzenbideko irakaslea eszedentzian–, Eba Gamindek –Zuzenbideko doktorea eta Merkataritza Zuzenbideko irakaslea– Santiago Larrazabalek –Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko irakaslea, Konstituzio Zuzenbideko irakaslea– eta Andres Urrutia euskaltzainburuak azaldu zuten, Ramón de la Sotaren garaipenetik 101 urtera, orduko proposamen askok oraindik ere badiraute.

Editorialean, honako galdera hau ageri da: *Zelan izan daiteke 1917ko gehiengoa 2018an ere gehiengoa izatea?* Eta erantzuna hauxe da: *Ez dago sekreturik*. Ondoko 10 abiaburuek osatzen dute emaitza: burujabetasunaren, utopiaren eta pragmatismoaren arteko uztardura; egunetik egunera lantzen den herrigintza-eredua; Espainiako estatuarekiko elkarrekiko tasuna; desberdinen arteko hitzarmena; publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak; gizarte- eta ekonomia-garapen orekatua; Ekonomia Itunaren aldarrikapena eta defentsa; hezkuntza-sistema berekia; euskararen eta euskal kulturaren zabalkundea; eta, azkenik, etika politikoa – politika etikoa.

58. zenbakian, euskal historiari eta gizarte- nahiz ekonomia-ereduari buruzko bi gogoeta eta interpretazio jasotzen dira –batetik, Ramón Zalloren eskutik eta, bestetik, Guillermo Dorronsororenetik–. Azkenik, munduko 25 pentsalari handienetako bati, Filosofia Politikoko katedradun eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuko zuzendari Daniel Innerarity filosofoari egingako elkarrizketa ere jasotzen da.

59. zenbakia

59. zenbakiak “Euskal kulturaren memoria” aletu du.

Bizi garen aroan, oroimena darabilgu aipagai une oro. Eta oroimenaren gaineko kezka hori euskal kulturari egotzita, ohartu gara biziki garrantzitsua dela oroimena berreskuratzea. Izan ere, euskal kulturaren esparruan daukagun lekua, iragana eta etorkizuna lotzen dituen katea bailitzan, katebegia da. Gure kultura behin eta berriro sortu behar da, katebegi bakoitzean sortu ere, iraganetik edan eta etorkizunean islatuta, betiere mundura zabalik.

Kulturaren inguruko kezka dugunok badakigu margolari eta eskultore ugari izan genituena mendearen lehen herenean; susmatzen dugu euskal zinema ere izan zela, badakigu gure idazleak hartu-emanetan izan zirela munduko beste bazter askotako egile ospetsuekin, musikariak eta kultura-mezenasak izan zirela... Alabaina, aurreko adierazpenez haratago, gure kulturaren gaineko oroimen eskasa daukagu. Eta premiazkoa zein garrantzizkoa da oroimen hori berreskuratzea.

Helburu horrekin bat eginda, kultura-adierazpen anitzetako (zinema, pintura-eskultura, literatura-bertsolaritza, kultura-mugimenduak...) adituen gogoetak eta ekarpenak batu ditugu, gure oroimenari lotutako eragile eta protagonistez jarduteko.


Horren haritik, ondoko hizlariak parte hartu zuten jardunaldian: Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendari ohia, Javier Viar; Labayru Fundazioko zuzendariordea, Igone Etxebarria; Alberto López Echevarrieta kazetaria, zineman aditua; Joseba Lopezortega historialaria; eta Goi-mailako Musikako tituludun eta Psikologiako lizentziadun Mercedes Albaina.

Ekimen honen helburu nagusia izan da XX. mendearen lehen herenean garatu ziren euskal kultura-adierazpideen memoria aldarrikatzea, batik bat, frankismoak ezarritako baldintza lazarrietan, diktaduraren sasoian garatu zirenen.



60. zenbakia

Urteko azken zenbakian, hirurogeigarrenean, “Euskararen erabileraren gakoak” izeneko mintegian parte hartu zuten hizlarien ekarpenak jaso ditugu. Sabino Arana Fundazioak antolatu zuen jardunaldi hori Euskaltzaindiarekin elkarlanean eta, bertan, euskararen etorkizuneko erronkak aztertu ziren, jakintzaren eta erabileraren arteko aldea estutzeko ekinbidea beren beregi jorratuta. Izan ere, gero eta gehiago ditugu euskaraz dakiten hiztunak Euskal Herriko zazpi herrialdeetan, baina euskararen erabilerak ez du izan espero zitekeen bilakaerarik.



Ondokoak dira ale horretan parte hartu dutenak: **Bingen Zupiria, Ana Ollo, Jon Aizpurua, Mikel Arregi, Garbiñe Bereziartua, Beñat Muguruza, Jean-Baptiste Coyos, Ana Esther Furundarena, Laura Garrido, Joxerra Garzia, Iñaki Irazabalbeitia, Ibon Manterola, Iñaki Martínez de Luna, Lander Martínez, Idoia Mencia, Garbiñe Mendizabal, Mertxe Mujika, Inma Muñoz, Patxi Saez, Natxo Sorolla; Rebeka Ubera eta Jon Zarate.** Gainera, zenbakian **Pedro Ontoso** kazetariak **Andres Urrutia** euskaltzainburuari egindako elkarrizketa eta **Ane Pikaza** eta **Txetxu Berruezo**ren lan grafikoak ere ageri dira.

MINTEGIAK



4.1. Ostiral Santuko hitzarmenaren XX. urteurrena. Irlanda

Irlandan 1998an sinatutako Ostiral Santuko hitzarmenak amaiera ona eman zien Irlanda eta Britainia Handiko buruzagi politiko eta sozial ugarik urte askotan izandako elkarriketei eta ahaleginei, bakea erdiesteko helburuz. Nazioarteko komunitateak lagundu zien ekimen zail horretan, berezi, Europar Batasunak eta Estatu Batuek. Horren haritik, azken 20 urte hauetan lotutakoen gaineko azterketa egin eta, Brexit delakoaren testuinguruan, Irlandak izan dezakeen etorkizunaz eztabaidatzeko asmoz, Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Institutuak (IED) mintegia antolatu dute hizlari hauen eskutik: Irlandako lehen ministro ohia, Bertie Ahern, Irlandako bake-prozesuaren arkitekto behinenetako bat; Ipar Irlandako Bakea eta Adiskidetzeari sustatzeko programaren EBko arduradun izandakoa eta, gaur egun, Irlandako gobernuaren aholkulari berezia Kolonbian, Patrick Colgan; Irlandako kontsula, Rocco Caira.



EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidente eta Europako Demokraten Alderdiko presidenteordeak, Andoni Ortuzarrek, hasiera eman zion jardunaldiari. Bertan, hezkuntza, herri-mugimendu, bizikidetzatza, komunikazio eta beste arlo batzuetako ehun bat lagunek parte hartu zuten.

Ahernek Irlandako gaurko egoeraz jardun zuen eta adierazi zuen Ostiral Santuko hitzarmenak “iragana eta geroa” bereizi zuela. Eta hitzarmena oso esanguratsua izan zela Irlandako historian “indarkeriari amaiera eman eta irlandarrak itxaropenez bete zituelako”.

Brexit delakoari dagokionez, Irlandako agintari ohiak esan zuen “Irlandan ez dutela berriro onartuko uhartea bitan zatitzen duen muga gogor eta fisikorik”, berriro ere “indarkeria ekar lezakeelako, baina egoera hori onartezina litzateke”.

Andoni Ortuzar buruzagi jeltzaleak esan zuenez, “Bakea balio gorena da eta Europako erakundeek barneratu, kapitalizatu eta esportatu behar dute. Bakea Europar Batasunaren ikur nagusia izan behar da mundu osoan. Haren kontsumo-ondasunik preziatuena. Europak bakearen eta askatasunaren lehen esportatzailea izan behar du”.



Ildo horretan, Ortuzarrek haxe gaineratu zuen: “Erronka horretan, Euskadik eta Irlandak ekarpen handia egin dezakete. Bakearen gainean asko dakigulako. Bakea egunean-egunean josi behar dela badakigulako. Badakigu iraganera begira jarri behar garela, indarkeriazko gertakari lazgarrienak berriro gerta ez daitezen”. Amaitzeko, esan du “euskaldunok eta irlandarrok etorkizunera begiratu ahal dugula eta begiratu behar dugula ikuspegi baikorrez guztiok ere adiskidetzea helburu dugula”.

Beste alde batetik, Ipar Irlandako Bakea eta Adiskidetzea sustatzeko programaren EBko arduradun izandakoak, Pat Colganek, azaldu zuen “arazoak arazo, Irlanda eta Ipar Irlanda nabarmen aldatu direla orain dela 20 urte sinatu zen hitzarmen pragmatiko horren bidez lortutakoei esker”. “Herrialdea bakean dago”, azpimarratu zuen.

Irlandako kontsulak, Rocco Coira jaunak, amaiera eman zion jardunaldiari. Rocco Coirak goizean aipatutako gai esanguratsuenak azpimarratu zituen.



4.2. Egiaren ostea: politika eta komunikazioa II

Sabino Arana Fundazioak eta Europako Demokraten Alderdiak (PDE-EDP) ekainaren 20an antolatutako jardunaldian, komunikazioaren eta iritzi publikoaren arloko adituek sare sozialen aroak ekarri dizkigun komunikazio-erronkak aztertu zituzten. Besteak beste, adituek ondokoa gaiak jorratu zituzten: “hedabideekiko mesfidantza”, “fake news” direlakoak eta “hauteskunde-pirateria”.

Berrogeita hamar bat kazetari, komunikazio arloko arduradun, herri-erakundeetako ordezkari, Kazetaritza eta Komunikazio irakasle eta bestek parte hartu zuten jardunaldian. Hizlariak, berriz, ondokoak izan ziren: Alfonso Vara, Kazetaritzako doktorea eta Nafarroako Unibertsitateko



Komunikazio Fakultateko irakaslea; Dan Brett, zibersegurtasunaren arloko kontrainteligentzia aditua den CounterCraft enpresako Estrategia eta Marketin sailtako burua; eta David Vidal, Hedabideei arreta egiteko arduraduna ALDEn (Europaren aldeko Liberal eta Demokraten Aliantzaren Taldea). Rafael Susok, Estrategia, Komunikazioa eta Enpresen Branding-aren arloetako aholkulariak koordinatu zuen mintegia.

Vara irakasleak, *News Report 2018* izeneko urteko inkesta digitalean argitaratutako datuetan oinarriturik, lehenengo aldiz aurkeztuko zigun erabiltzaileek Espainiako hedabideetan

argitaratzen diren gezurrezko albisteen edo fake news direlakoan inguruan zer pentsatzen duten eta jendeak hedabideen gainean duten mesfidantza-mailaren azterketa erakutsiko digu. Ildo horretan, azaldu zuen “erabiltzaileen % 69k mesfidantzaz hartzen dituela hedabideak”



Beste alde batetik, Dan Bretten hitzaldiaren ildo nagusia hauteskunde-pirateriari buruzkoa izan zen; horren haritik, azaldu zigun izan badirela herrialde batzuen interferentziak, beste herrialde batzuetan interes geopolitikoak dituztelako. Gertaera hori oso arriskutsua da demokrazientzat. Azkenik, David Vidalek azaldu zuen mehatxu horiek egiazko arriskua izan daitezkeela, oro har hartuta, demokraziarentzat.



4.3. Guatemala, Espainiako errepublika eta Eusko Jaurlaritza atzerrialdian



Ekainaren 28an, Arturo Taracena Arriola historialari eta idazle guatelmadarrak eta euskal historialari batzuek frankismotik ihesi ibili ziren Espainiako errepublikazaleei Guatemalak emandako elkartasuna aztertu zuten. Jardunaldi horretan, Errepublikaren aldeko jarraitzaileentzat oso garai zailak izan zirenen datuak, izenak eta gertakariak azaldu zituzten historialariok.



4.4. “Erantzun bidezko Zigor Zuzenbidetik aurea hartzen duen Zigor Zuzenbidera”

Hainbat epaile, magistratu, Zigor-arloko abokatu, politikari eta irakaslek parte hartu zuten urriaren 19an Sabino Arana Fundazioak antolatu eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendari Margarita Uria andreak koordinatu zuen “Erantzun bidezko Zigor Zuzenbidetik aurea hartzen duen Zigor Zuzenbidera” izeneko mintegian.

Mintegian, Zigor Zuzenbidearen eta Zigor Prozeduraren arloetan azken urteotan gertatu diren aldaketak jorratu ziren. Ildo horretan, esan beharra dago aldaketa horietako baten funtsa dela egindako delituari erantzute hutsa baino, delitua bera saihestea. Horren haritik, Madrilgo Probintzia Auzitegiko magistratu eta Karlos III.a Unibertsitateko irakasle elkartu Juan José López Ortégak adierazi zuenez, “Frantzian, larrialdiko egoeran onartu zen terrorismoaren aurkako legeria aurea hartzea xede duen zigor-arloko esku-hartze horren adibide ona dugu”.



López Ortégaren esanetan, eredu berriak “Zigor-arloko justiziaren sistemak lortu nahi dituen helburuak berriro zehaztu behar dira eta, horretarako, beste tresna batzuk eta beste ikertze-modu askoz oldarkorrago batzuk baliatu behar dira, orain arte inteligentzia-zerbitzuek bakarrik erabili dituztenak”.

Aurea hartzeko esku-hartzearen eredu berriaren arrazoirik behinena, jakina denez, segurtasuna da. Horrela, magistratuak esan zuenez, “ikerketaren gehiena isilpekoa duen prozedura bultzatzen du eredu horrek, hau da, salatutakoak eta defendatzaileak ez dute akusatuaren aurkako prozedura horren berririk, baina, horrela, ohiko Zigor Zuzenbidearen ezaugarri garrantzitsuenetako bat, hots, bidezko prozedura izateko eskubidea, lausotu egiten da”.

Azken gogoeta gisa, Juan José López Ortégak esan zuen “inteligentzia-zerbitzuek emandako informazioa zigor-prozeduran erabiltzeko erak prozeduraren beraren oinarritzko bermeak arriskuan jartzen baditu eta, egiatan, irudikeria edo balizko arriskua izan beharrean, benetako arriskua bada, ezbaia ezin dela izan eredu berriaren arauketari ekin behar ote diogun, ezpada, ikertzeko mugak non jarri behar ditugun”.



Beste alde batetik, UPV/EHUko Zigor Zuzenbideko katedradun eta Konstituzio Auzitegiko presidenteorde ohi Adela Asuak delitu egin osteko jarrera positiboen paradoxak nabarmendu ditu, besteak beste, laguntzarena, delitugileak antolakunde kriminala uzten duelako edo biktimari egindako kaltea konpontzeko asmoa agertzen duelako. Halako kasuetan, delitu-antolakunde bateko kide den ala delitu arruntak diren, tratua oso desberdina da.

Adela Asuaren esanetan, “delitu-erakundeez ari garenean, zigorra izugarri apaltzeko modua egongo litzateke, biktimari egindako kaltea konpontzeagatik baino, justiziarri laguntza emateagatik. Delitu-antolakundeei gagozkiela, ikerketaren ildo nagusi da; biktimari egindako kaltea konpontzeko justiziaren

eremuan, berriz, aintzat hartu behar da delitugileak erantzukizuna hartzea, gaizkileak alde edo moldez konpentsatu nahi du biktima eta egindako kaltea konpontzeko ahalegin egingo du”. Asuaren iritziz, “gizarteak filosofia hori uler dezake. Horrenbestez, bat dator delitua egiten duen pertsona baten gizarteratzea bilatzen duen Zigor Sistema batekin”.

Beste ildoa, ordea, poliziaren eremuari atxikitzen zaio, hau da, “nik justiziari lagunduko diot eta zigorra apaltzea adostuko dut poliziarekin. Hala, ildoetako bat hitzarmenaren esparrukoa da eta bestea biktimari laguntzeko esparrukoa; ildo desberdinak dira”, adierazi zuen.



4.5. Garapenerako lankidetzari buruzko jardunaldia: “Afrikarekiko lankidetzari bultzada. Begiradak eta erronkak Euskadirentzat”



Sabino Arana Fundazioak urriaren 24an antolatutako jardunaldi horretan, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko adituek eta profesionalek, lankidetz-agentzia eta antolakundeetako arduradunek, katedradunek eta bestek parte hartu zuten. Hilariak, berriz, ondokoak izan ziren: Jean Lokenga, UNICEF erakundeko Haurrak Babesteko Somaliako burua; Borja Monreal, Gizarte Berrikuntzako Politiketan aditua; eta Mamadou Dia, Senegalgo boluntzariotzako lankide, ekintzaile eta Hahatay GKEren sortzailea. M^a del Mar Magallón andreak, Alboan elkarteko zuzendariak, jardunaldia koordinatu eta moderatzaile jardun zuen.

Jean Lokengak uste osoa izan zuen “Afrikako herrialdeen eta Euskadiren arteko lankidetz-ekimenek onura esanguratsuak ekarriko zizkietela bi alderdiei” eta, haren iritziz, “Gaur egun, erronka baino aukera gehiago dago Afrikaren eta Euskadiren arteko lankidetz-ekimenak abian jartzeko”.

Beste alde batetik, Gizarte Berrikuntzako Politiketan aditua den Borja Monrealek adierazi zuen “Afrikako kontinenteko ekonomia bizkortasunez bilakatu dela azken hamarkadan, hainbat herrialderen lidergoan oinarri harturik, eta herrialde horiek lortu dutela ekonomia hazteko eta gizarte “upgrading” delakoa suspertzeko dinamika onuragarriak abiaraztea”. Hala, Monrealen aburuz, “ingurumari hori ikusita, Afrikarekiko lankidetz-eredu berria landu behar da, email-

hartzailearen ohiko harremana aldatzeko eta bitarteko eta tresna berriak, teknologikoak nahiz finantza-arlokoak, baliatzeko, azken batean, herrialde bakoitzaren ahalbideak bultzatu eta gizarte-baldintzak hobetzeko egiturazko aldaketa sorrarazteko xedez. Gizarte-berrikuntzaren ikuspegiak herrialde bakoitzeko barruko gaitasunak baliatuz eraikitze modua ematen du, eta kanpoko balio erantsia dakar, kontinentean egiturazko aldaketak eragin nahi dituzten prozesuak bultzatze aldera”.

Azkenik, Senegalgo boluntzariotzako lankide, ekintzaile eta Hahatay GK Eren sortzaileak, Mamadou Diak, etorkin gisa bizi izandako istorioa kontatu zigun eta Mamadou bera buru duen Hahatay gobernuz kanpoko erakundearen proiektuaren nondik norakoak azaldu zizkigun: “azken batean, desmitifikatzeko gune bat, elkar ezagutu eta elkarrekin jarduteko harremanak eta aukerak sortu nahi dituen gunea da”.



“Sarritan entzun ohi dugu Afrikako gazteak etsita daudela, baina hori ez da egia; gazte motibatuak, sutsuak, maratzak dira, eta aldaketa bultzatu nahi dute. Horixe ulertu nuenean, Afrikako gazteen motibazioa elikatzeko egitasmoak lantzen hasi nintzen, gazte horiek lider bihur daitezen”, azaldu zuen.



4.6. X. Bilboko Elkarriketak: Latinoamerika drama, populismo eta itxaropenaren erdian

Europako Alderdi Demokratarekin (PDE-EDP) elkarlanean.



Jardunaldiak mugimendu populistak politikaren arloan oldarka sartu eta finkatzeaz batera, munduan eta, zehatzago, European eta Latinoamerikan gertatzen ari diren eraldaketa sakonak jorratu zituen. Eta, horren haritik, adituak irtenbideak arakatzen ahalegindu ziren sistema

demokratikoa bera eta askatasuna arriskuan jartzen dituzten korrante populistak horiek moteltzeko.

Zehatzago esanda, mintegiko hizlariak Venezuelako zorigaitzaz eta balizko irtenbideez arituko dira beren-beregi, bai eta Mexiko berriaren itxaropenaz ere, Manuel López Obrador presidentearen eskutik.

Horretarako, besteak beste, ondoko hizlariak parte hartuko zuten mintegian: Julio Borges, Venezuelako Asanblada Nazionaleko presidente ohia, 2017-2018 aldian; eta Gabriela Cuevas, Mexikoko Kongresuko senataria, Senatarien Ganberako Kanpo Harremanetarako Batzordeko burua eta Parlamentuarteko Batasunaren munduko presidentea.

Jardunaldiaren hasiera-ekitaldian, Andoni Ortuzar, EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidentea eta PDE-EDPko lehendakariordea; Jean Marie Beaupuy, PDE-EDPko ordezkaria; Gutenberg Martínez, Txileko Miguel de Cervantes Unibertsitateko errektorea eta Diputatuen Ganberako presidente ohia eta Izaskun Bilbao, Europako Parlamentuko kidea eta ALDE taldeko presidenteordea.



4.7. 1918-2018: lurralde eraldaketak eta Europako eraikuntzaren geroa

Europako Alderdi Demokratarekin (PDE-EDP) elkarlanean.

Estatu Batuetako presidente Woodrow Wilsonen 14 ataleko adierazpenaren eta Europako nazionalitateen loraldiaren mendeurrenaren ingurumarian, Europar Demokraten Institutuak (IED) eta Sabino Arana Fundazioak “1918-2018: lurralde eraldaketak eta Europako eraikuntzaren geroa” izeneko mintegia antolatu zuten Bilbon azaroaren 29an.



Jardunaldi horren helburu nagusiak honakoak izan ziren: egungo egoera mahairatzea eta Europa eraikitzen jarraitzeko proiektuaren etorkizuneko aukerak aztertzea.



Horretarako, hiru hizlarik jardun zuten mintegian: Attila Dabis, Szekler Nazio Kontseiluaren (SzNC) Kanpo Gaietarako komisarioa; Nicola McEwen, Edinburgoko Unibertsitateko Lurralde Politikako irakaslea eta Centre on Constitutional Change (Konstituzio Aldaketarako Erakundea) erakundeko zuzendarikidea; eta Valentin Popescu kazetaria. Xabier Ezeizabarrenak, Deustuko Unibertsitateko eta UPV/EHUko Administrazio Zuzenbideko irakasleak, jardunaldia koordinatu zuen eta moderatzaile aritu zen.



4.8. Euskal hezkuntzaren memoria. Euskal hezkuntzaren memoriaren eragileak

Gizarteak oroimena landu behar du. Beraz, premiazkoa da oroimena berreskuratzea eta oroimenari balioa ematea.

Konpromiso horri atxikita, Bilbao 700 Fundazioak eta Sabino Arana Fundazioak jardunaldi batzuk antolatu zituzten 2017an, XX. mendeko lehen herenean sortu ziren euskal kultura-adierazpenen oroimena aldarrikatzeko eta, zehatzago esanda, frankismoak ezarritako baldintza penagarrietan garatu ziren kultura-adierazpenak aldarrikatzeko.



2018an, berriz, hezkuntza izango genuen jomuga. Hain zuzen ere, XX. mendearen hastapenetatik aurrera, Euskadiko Hezkuntzaren historian aztarna utzi duten pertsona, proiektu eta ekimen esanguratsuenak gogorarazi genituen. “Euskal Hezkuntzaren Memoria” izenburuaren ildotik, aipatutako jardunaldia abenduaren 4an egin zen, asteartearekin, 9:30etatik 13:30etara, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.

Mintegian, besteak beste, ondoko gaiak jorratu ziren: euskal hezkuntzaren ildo nagusiak XIX. mendearen amaieratik aurrera, euskaraz idatzitako testu liburuen sorrera eta bilakaera, Euskal Kulturaren Pizkundea, ikastolen bilakaera, euskara harreman-hizkuntza gisa txertatzeko ekinbidea hezkuntza-sisteman

Horretarako, ondoko hizlariak aritu ziren jardunaldian: M^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu ohia; eta Begoña Bilbao Bilbao, Karmele Perez Urraza eta Gurutze Ezkurdia Arteaga, UPV/EHuko Hezkuntza Fakultateko irakasleak, Pedagogiako doktoreak eta GARAIAN ikerketa-taldeko kideak.

Mintegian, euskal hezkuntza eta kulturaren arloetako ordezkariak ere parte hartu zuten.

HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK



4.9. W. Humboldt-en jaioetzaren 250. urteurrena

Prusiako humanista, politikari, hizkuntzalari eta, XIX. mendearen hasieran, euskal ikasketen bultzatzaile nagusi izan zen Wilhelm von Humboldt (1767-1835) jaio zenetik 250 urte bete direla

eta, UPV-EHUko Filosofia Saileko Iñaki Zabaleta Gorrotxategi irakasleak hitzaldia eman zuen martxoaren 7an. Bertan, Humboldték euskal nazioari eta euskarari buruz egindako ikerlanez jardun zuen.

W. von Humboldt itzal handiko pentsalaria izan zen; hainbat hizkuntzatan berba egiten zuen eta, 1810. urtean, bere izena daraman unibertsitatea sortu zuen Berlinen. Alemaniako unibertsitate hark, bereziki, hezkuntza eta ikerkuntza jorratu zituen eta haren egitura eredugarria izan zen XIX. mendean beste unibertsitate askorentzat, hala nola Johns Hopkins (Estatu Batuetan, ikerkuntzan aritu zen lehen unibertsitatea) Harvard, Duke edo Cornell unibertsitateentzat. Alemaniako Hezkuntza ministroa izanik, Humboldték ikasketa-planak aldatu zituen eta irakasleen nahiz ikasleen arteko harremanak estutzeko programak indartu zituen. Azpimarratu behar dugu, ezinbestean, Humboldt Unibertsitatearen ereduak eragin handia izan duela beti Europako eta mendebaldeko beste unibertsitate batzuetan.



Wilhelm von Humboldt, pentsalaria, estatu-politikaria, hezkuntza-ereduaren eraldatzailea, hizkuntzalari, historialari, humanista eta euskaltzalea, Euskadin izan zen 1799 eta 1801 urteen artean. Bidaia horiei esker, gertutik izan zuen euskararen berri eta gure hizkuntzari buruzko hainbat lan prestatu zituen. Euskal Herria ikertu zuen nazio gisa, ohar etnografikoak bildu zituen eta euskara bera ikertu zuen. Humboldték zioenez, “euskara hizkuntza berezia da, lexikoari, morfologiari nahiz ahoskerari dagokienez”. Hala, Humboldtentzat, euskara talde etniko jakin baten berezko ezaugarria zen: “herri berezi baten ezaugarriarik behinena”

Zabaletak, «Wilhelm Von Humboldt eta Euskal Herria. Bere jaiotzaren 250. urteurrenean» izeneko liburuaren egileak, Humboldtén euskal ikerlanen berri eman zigun eta liburuaren edukiak azaldu zizkigun, Prusiako hizkuntzalariaren pentsamendu antropologikoa aintzat hartuta aurkeztuta.



4.10. Itxi gabeko zauria. Gerra Zibila eta frankismoa, Alazne Díez Muñizen eskutik

Martxoaren 22an, Alazne Díez Muñiz antropologo eta soziologoak *Itxi gabeko zauria. Gerra Zibila eta frankismoa* izeneko hitzaldia eskaini zuen.

Plentziako antropologoaren iritziz, oroimena funtsezkoa da gertatutakoak ahaztu ez, baina gorrotorik ez daukan bizikidetza eraikitzeko. Oroimen historikoa berreskuratzea ez da iraganera begiratzea “gorrotoz eta ezinikusiz betetako ontzi batetik”; aitzitik, “eskubide baten aitortopenean oinarritu behar da eta modua eskaini behar digu egiatan gertatu zirenak



ulertzeko eta esperientzia horretatik ikasteko, batetik, iraganeko akats berdinak ez egiteko eta, bestetik, biktimei justizia egiteko”.

Hitzaldian, Díez Muñizek Gerra Zibilean jazo diren lau motatako indarkeriazko ekintza jakinak agerrarazi zituen: indarkeria politikoa, egiturazko indarkeria, indarkeria sinbolikoa eta eguneroko indarkeria, batik bat, ikerketaren xede erabili dituen Langileen batailoietan eta, era berean, frankismoak iraun zuen aldi osoan eta “gizakien inguruan sorrarazi zen jatortasun eta zitalkeriaz blaitutako sasoi hartan”.

Alazne Díezen iritziz, “pairatutako min bizi horrez gain, galtzaileei ezarritako isiltasuna kontuan hartu behar dugu, malkoak jendaurrean ezkutatzeko ezinbestekotasuna eta informazioaren desitxuraketa; azkenak biktima bihurtu nahi izan zituen askotan indarkeriaren eragileak”.

Guztiz ere, antropologoaren hitzaldiaren beste helburuetako bat izan da, era berean, bake iraunkorra erdiesten laguntzea. Izan ere, gertatutakoek atzeraldirik ez dutela kontuan hartuta, adiskidetzearen edo bakezkoak egitearen garrantzia nabarmendu nahi izan zuen.



4.11. Obediencia vasca. Santiago Aznar y aquella comida en Guéthary



Apirilaren 18an, Iñaki Anasagasti senatari jeltzale ohiak, Eusko Jaurlaritzako bozeroale eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu Josu Erkoreka eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskal Sozialisten Taldeko kide Josu Montalbán jaunak lagunduta, «La obediencia vasca. Santiago Aznar y aquella comida en Guéthary (1940)» izeneko hitzaldia eskaini zuen.

Abertzaleen eta sozialisten arteko gutun bidezko harreman ugarietan oinarrituta, hitzaldi horretan, batzuen eta besteen arteko lehen identitate-gatazka aztertu zen, "euskal esanekotasuna edo obedientziaren" harira. Gatazka hori piztu zen biak ere erbestealdiko gobernua osatzen zutela.



4.12. Venezuelarekiko elkartasuna

Venezuelari elkartasuna adierazteko helburuz, Sabino Arana Fundazioak mahai-ingurua antolatu zuen maiatzaren 29an, herrialde ahaide horretan egun dagoen testuinguruaz eztabaidatzeko, bertako egoerak eragiten baitie Euskadin bizi eta, chavismoari atxikitako agintarien erabaki bidegabea dela medio, pentsioa kobratzen ez dutenei eta aurretikoen jaioterrira etorri nahi baina ezin dutenei.

Ekitaldian, ondokoek parte hartu zuten: José Manuel Puente jauna, Venezuelako ekonomialaria eta



Administrazioko Goi Ikasketen Institutuko (IESA) Politika Publikoen Zentroko irakaslea; Carmen Beatriz Fernández, Data Strategia enpresako zuzendaria –berak eta beste bi biltzailek idatzitako liburuari buruz hitz egin zuen, zatikaturik dagoen herrialde baten aldeko behar-beharrezko elkartasuna dakarten istorio adoregarriak azalduta–; Iñaki Gainzarain, Euskadin bizi diren Venezuelako pentsiodun eta erretiratuen elkarteko presidentea –oraingo egoeran, pentsiodun eusko-venezuelarrek pentsioa kobratzeko zailtasunez berba egingo digu Gainzarainek; eta Alberto Galindo, ASOCOLVAS elkarteko presidentea –Kolonbiako antolakunde hori lan bikaina egiten ari da astero-astero Euskadira iristen ari diren venezuelarrei laguntzeko. Iñaki Anasagasti senatari ohiak moderatzaile jardun zuen.



4.13. *Un patriota vasco en Nueva York. José Luis de la Lombana y Foncea y la Delegación de Euskadi en los Estados Unidos*

Eusko Jaurlaritzako bozeroale eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak, Josu Erkorekak, Iñaki Anasagasti senatari ohiak, eta Xabier Irujok, Historiako doktore eta Nevadako (Reno) Euskal Ikasketen Zentroko zuzendariak, *Un patriota vasco en Nueva York. José Luis de la*

Lombana y Foncea y la delegación de Euskadi en los Estados Unidos izeneko hitzaldia eman zuten ekainaren 7an.



Hitzaldian, Erkorekak, Anasagastik eta Irujok Eusko Jaurlaritzak New Yorken izan zuen ordezkariaren lehen urteak jorratu zituzten, hain zuzen ere, Bigarren Mundu Gerra piztuta, Agirre lehendakaria nazietatik ihesi New Yorkera heldu baino hiru urte lehenagoko sasoia. Eta Eusko Jaurlaritzari laguntza emateko helburuz, Frantzia nahiz Estatu Batuetan

egindako ahaleginak, euskal abertzaletasunaren eta matxinatuen aldeko propaganda ere aletu zituzten, oro har, jeltokide horren begietatik. Gerra amaitutakoan, Lombana Kolonbiara joan zen eta bertatik euskal herritarren askatasunen aldeko lanean jarraitu zuen.



4.14. *Nafarroa, zergatik ez da estatua? José Antonio Beloquiren eskutik*

Urriaren 3an, EAJ-PNV alderdiaren NBBko kide eta Uharteko Udaleko zinegotzi (Geroa Bairen ordezkakritzan), José Antonio Beloquik Nafarroako Foru Komunitatearen egungo egoera eta azken 200 urteotan Espainiako estatuaren barruan izan duen bilakaera azaldu zituen. Hitzaldiaren hasieran, ekitaldi horretan bertan aurkeztu zuen liburuaren izenburua



baliatu zuen: *‘Nafarroa, zergatik ez da estatua?’*

Horrez gain, galdera jolasean dabil liburuaren azalean bertan ageri diren banderetan islatzen den oinarri identitarioarekin. Ikurrok, baina, ez dira halabeharrezkoak, gaur egun ere nafar askok eta askok zalantzan jartzen baitute erresuma zaharraren euskaltasuna.

EAJ-PNV alderdiaren NBBko presidente Unai Hualdek lagunduta, José Antonio Beloquik bikain azaldu zuen hitzaldian nafarrek zer-nolako gorabeherei aurre egin behar izan dieten azken bi mendeetan, galdera hori eta beste galdera batzuei ere erantzuteko helburuz. Ibilbidea XIX. mendearen hastapenetan hasi zen, Nafarroa ia-ia burujabea zela, baina burujabetza hori frankismotik demokraziarantz igarotzean amaitu zen eta Nafarroa autonomia gisa eratu da estatu deszentralizatu baten barruan.



4.15. Venezuelako krisialdia: arrazoiak eta irtenbideak, Venezuelako Asanblada Nazionaleko presidente ohi Julio Borges-en eskutik



Julio Borges, Venezuelako Primero Justicia alderdiko diputatua, Bolibartar Parlamentuko presidente ohia eta Nicolás Maduroren gobernuaren aurkari nagusia, Bilbon izan zen azaroan Europako Alderdi Demokratik (PDE-EDP) eta Sabino Arana Fundazioak urtero-urtero antolatzen duten “Bilboko Elkarriketak” izeneko mintegian parte hartzeko. Gainera, Bizkaiko hiriburuan hainbat egunetan egon zenez, Borgesek hitzaldia eman zuen Fundazioan eta, bertan, Venezuelako egungo krisiaren arrazoiez jardun zuen eta irtenbideak aurkitzeko zerbait egiten ari ote diren mahairatu zuen.

IKUS-ENTZUNEZKOAK



4.16. *Sitio distinto* dokumentalaren aurkezpena, Davide Cabaleioren eskutik

Apirilaren 12an, Davide Cabaleiok “Sitio Distinto” dokumentala aurkeztu zuen Sabino Arana Fundazioan. Bertan, Bertan, azken 120 urteotan Euskadira etorritako Galiziako etorkinen istorioa eta, aldi luze horretan, milaka urte dituzten bi kultura horien arteko harremanak jorratzen dira.

Sitio Distinto azken 120 urteotan barrena doan bidaia da eta, bertan, Galiziatik Euskadira etorritako etorkinen hainbat aldi erakusten dira. Hasteko, burdinaren meatzaritzan lan egiten hasi zirenean, gero arrantzan, gero industrian... eta, gaur egun, euskal lurraldeetan bizi diren gazte galiziar askorena. XIX. mendearen amaieratik gaurdainoko bidaia



horren bidez, erraz ulertuko dugu galiziarrek zergatik etorri ziren Euskadira eta zergatik geratu ziren hemen. Era berean, igarriko dugu erabaki horren ondorioz, bi herriak hurbildu eta batera hazi direla gizartean, kulturen eta beste alor askotan. Egun, 40.000 galiziar bizi dira gurean eta, horregatik, galiziera dugu Euskadin gehien erabiltzen den hirugarren hizkuntza, gaztelaniaren eta euskararen atzetik.

Ilido horretan, dokumentalean gure jendarteko pertsona esanguratsuen lekukotasunak ageri dira, besteak beste, ondokoenak: Antón Reixa, Kepa Junkera, Galiziako jatorria duen Dani Álvarez kazetaria; Xabier Amuriza bertsolaria, Rosa Orellana antropologoa; Deustuko Unibertsitateko katedradun Xose Estevez, Uxia Senlle, Iñaki Anasagasti...

5.1. Tailer didaktikoak eta ahozko historiari buruzkoak

Gazteak gure gizartearen eta gure herriaren etorkizuna dira. Horregatik, ahaleginak eta bi egin behar ditugu egunetik egunera gizarte demokratikoa eratzeko, bakearen eta elkarriketaren kultura lantzeko asmoz; jakintzaren gizarte globalizatua eratu behar dugu, pertsonak aldezen dituen; azken batean, elkartasunari heltzen dion euskal gizarte aurreratua eratu behar dugu.



Oinarri horietatik abiatuta, Sabino Arana Fundazioak eduki daukan helburu nagusietako bat gure neska-mutilak eta gazteak balioetan hezte da, etorkizunean gaitasun kritikoak garatzeko, elkartasunari eta giza eskubideei gogotik eusteko eta desberdintasun orori aurre egiteko, besteak beste, genero desberdintasunari aurre egiteko, elkartasunean oinarritutako balioak erabili eta behetik gora eraikitako gizartean sinets dezaten.

Horregatik, 2018ko ekitaldian zehar, hainbat tailer antolatu ditugu, Arte plastikoak, Literatura eta beste jakintza-alor batzuk Historia eta Oroimen historikoarekin, euskararekin edo euskal kulturarekin uztartzeko.

Eguno molde didaktikoak erabiliz, aniztasunari eta eskolako ume-gazteen beharrezane ireparaturik, kurrikulua aberasteko balioko dieten jarduera jakingarri batzuetan aritu dira ikasleak.



8-16 urteko neska-mutilek parte hartu dute ondoko tailerretan:

Artea-Zientzia-Teknologia

	[saio kopurua]
Otsailak 2	1
Azaroak 15	1

Historia: Ezagutu eraldatzeko. “Guernica” berrinterpretatzen

	[saio-kopurua]
Ekainak 11	2
Azaroak 19	1
Azaroak 26	1
Azaroak 27	1
Azaroak 28	1

Historia: Ezagutu eraldatzeko. Arboglifoak

	[saio-kopurua]
Ekainak 13	2
Ekainak 14	2
Azaroak 19	2
Azaroak 20	1
Azaroak 26	1
Azaroak 27	1
Abenduak 10 [Gabonetako arboglifoak]	2
Abenduak 12 [Gabonetako arboglifoak]	2
Abenduak 13 [Gabonetako arboglifoak]	2

Mende berriko eskola: Kulturartekotasuna. Taumatropoak

	[saio-kopurua]
Azaroak 21	1

Mende berriko eskola: Kulturartekotasuna. Euskal loteria

	[saio-kopurua]
Abenduak 3	2



Mende berriko eskola: Kulturartekotasuna. Gabonetako zorion-txartelak



[saio-kopurua]

Abenduak 14	2
Abenduak 20	2



Etorkizuna eraikitzen. Bilbo eraikitzen



[saio-kopurua]

Azaroak 26	1
Azaroak 27	1
Azaroak 28	2
Azaroak 30	1



Etorkizuna eraikitzen. Gabonetako zorion-txartel animatua (Pika Pika)



[saio-kopurua]

Abenduak 11	1
Abenduak 18	1
Abenduak 19	2



Museoen eguneko tailerra



[saio-kopurua]

Maiatzak 18	2
-------------	---



4.8. “Euskararen erabileraren gakoak” mintegia. Euskaltzaindiarekin elkarlanean.

Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak euskararen etorkizuneko erronkei buruzko jardunaldia antolatu zuten joan den uztailaren 12an. Bertan, EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko erakundeetako ordezkariak eta berrogeita hamar bat gizarte-eragile eta -antolakundeetako ordezkariak parte hartu zuten. Esan bezala, euskararen erronkez aritu ziren eta adituek nabarmendu zuten euskararen jakintzaren eta erabileraren arteko aldea txikitu beharko litzatekeela. Izan ere, gero eta lagun gehiagok dakite euskaraz Euskal Herriko zazpi lurraldeetan, baina erabilerak ez du jakintzaren pareko hazkunderik izan.



Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Bingen Zupiriak hasiera eman zion jardunaldiari, Euskaltzaindiko eta Sabino Arana Fundazioko ordezkariarekin batera, hots, Andres Urrutia eta Juan M^a Atutxarekin, hurrenez hurren. Jardunaldiko hizalariak ondokoak izan ziren: Jon Aizpurua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlanetako arduraduna; Garbiñe Beraziartua eta Beñat Muguruza EHUKo irakasleak; Joxerra Gartzia kazetaria, idazlea eta irakaslea; Miren Dobarán, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Mikel Arregi, Nafarroako Gobernuak *Euskarabidea* Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari nagusia; eta Joseba Erremundeguy, Euskararen Erakunde Publikoaren Misio karguduna. EHUKo irakasle Ibon Manterolak eta Euskaltzaindiko idazkariorde Erramun Osak moderatzaile jardun zuten.

7.1 ■ ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAK

Agiritegian bildu diren dokumentazioen bidez egindako lanez gain, esan beharra dago 2018ko ekitaldian ere ondoko bekadunak eta praktikaldiko ikasleak hartu ditugula:

- ☐ Rebeca López, bekaduna, agiritegi-lanetan, frankisten eta EAJ-PNV alderdiaren dokumentazioa lantzeko.
- ☐ Mari Giaimo, uda gurean emandako ikasle estatubatuarra, memoria historikoari lotutako datutegiak eta proiektuak mekanizatzen.
- ☐ Zeyi Chen, UPV/EHUko ikaslea, aldizkako argitalpenak erregistratzen.
- ☐ Kevin Maestre, bekaduna, argitalpenen kontrola egiten hemerrotekan eta prentsa historikoaren informazioa ustiatzen.

a. AGIRITEGIKO FUNTSAK

- ☐ 400 fitxa baino gehiago erregistratu dira, hainbat dohaintzetatik etorritako funtsen agiri-deskribapena osatzeko. Aurten, besteak beste, ondokoak aipatu behar dira: Iñaki Anasagastik emandako agiri historikoak, frankisten sasoiko agiriak edo EAJ-PNV alderdiaren Bilboko Errekaldeko Uri Buru Batzarren agiritegia.
- ☐ Ikus-entzunezkoei lotutako 74 fitxa erregistratu dira (VHS formatuko bideoak, CD eta DVD euskarriak).
- ☐ Falangek erregistratutako Amorebietako herritarren datutegia sortu dugu: 1.024 fitxa.
- ☐ Euskal iheslarien datutegia sortu dugu: 940 fitxa
- ☐ Erbestealdian izandako EAJ-PNV alderdiko jarraitzaileen datutegia sortu dugu: 422 fitxa.

b. LIBURUTEGI KO FUNTSAK

Aurten, **579** lan berri erregistratu dira. 2018ko abenduaren 31n, **44.379** monografiak osatzen dute Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko liburutegia. Horietatik guztietatik, 32.947 lan Bilboko instalazioetan gordeta daude eta gainerakoak, 11.432 lan, hain zuzen ere, Arteako biltegian gordeta daude.

Orain dela urte batzuk hartutako erabakiari jarraiki, Bilboko biltegian ale bakarra gordetzen da lan bakoitzeko, betiere gaia eta edukiak bat badatoz gure liburutegi espezializatuan gordetzeko ezarri ditugun irizpideekin¹. Gainerako lanak, oro har, Arteako liburutegira eramaten dira (baliozkotzat jotzen dira gordetzeko helburuz, bikoiztuta egon arren); bestela, beste toki batzuetara bidaltzen dira (Gaintzaren bitartez).

2018ko ekitaldian, kopuruari begiratuta, ondokoek egindako dohaintzak nabarmendu behar ditugu: Paco Allende (Arabako funtsa), Koldo San Sebastián edo Iñaki Anasagasti.

C. UZTURRE HEMEROTEKA

Urte osoan zehar jaso diren aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jardun dugu. Ale guztiak sailkatu, antolatu, eta bana-banaka egiaztatu ostean (behin baino gehiagotan ageri ote diren jakiteko) guztira, **269** titulu erantsi zaizkio hemerotekari 2018an (aurreko urtean baino zazpi aldiz gehiago). UZTURRE hemerotekako biltegiak 500 metro linealetik gorako edukiera dauka eta, dagoeneko, **7.312** titulu eta **188.082** ale gordetzen dira bertan.

Beste alde batetik, Hustuketa izeneko datutegian (hainbat argitalpenetan, besteak beste, *Euzkadi*, *Alderdi*, *Hermes Deia*, *Muga*, *JEL*, *Historia Contemporánea* eta abarretan informazio historikoari buruz argitaratutako artikulak jasotzen dituen) **12.330** erregistro jasota daude.

7.2 ■ KONTSULTAK

2018ko ekitaldian, aurreko urteetako joerari jarraituz, informazioa emateko **312** eskaera jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian, gehienbat, e-postaz (125) eta telefono bidez (83). Bestetik, esan beharra dago gero eta kontsulta gutxiago egiten dela agiritegian bertan, (63), hitzordurik hartu barik, edo webgunean dauden inprimakiak erabiliz (34). Bitxikeria moduan, esan dezagun aurten kontsulta bat jaso posta arruntaren bidez eta beste sei Facebook WhatsApp bidez.

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestealdiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiartekoek, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

¹ Historia garaikidea, Politika, Antropologia, Zuzenbidea eta Gizarte-zientziak.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan beharra dago informazioa kontsultatzeko eskaera egin eta gure erantzunean hartutako datuak aztertu ondoren, agiritegira jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla. Aretoko erabiltzaile horien –ikertzaileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak– izen-abizenak eta ikergaia jasotzen dira ikertzaileei eskainitako oroitza-txostenaren azken atalean. Ikergaien zerrenda, argi denez, urtean izandako kontsulten erakusgarri eta laburpena da.

Jasotako kontsulten banakaketa			
Norbanakoak	161	EAJ eta SAF	30
Unibertsitatea / Ikerkuntza	70	Enpresak / Ekoiztetxeak	5
Gizarte- eta Kultura-erakundeak/Admin.	36	Hedabideak (Deia...)	10

1992ko urritik hona, **6.145** kontsulta jaso dira guztira agiritegian.

7.3 ■ HISTORIA ETA DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AHOLKULARITZA: Iankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpenen kontrola, ikerketa-lanen koordinazioa.

- DEIA egunkariarentzako artikulak: *Historias de los Vascos* atala. 44 artikulak argitaratu dira 2018an.
- Ikerlanak: "Casilda Iturrizar andrearen biografia" eta Bilboko Udalaren "Casilda Iturrizar" bekak, 1903. Urtetik aurrera.
- Aholkularitza historikoa eta laguntza Josu Chueca komisario duen erakusketa honetan: "Álava sarea, emakume ikusezinak, elkartasuna eta espioitza, 1936 – 1947", eta Baleukok ekoizitako dokumental honetan: "Álava sarea, emakume ikusezinen sarea".
- Vicente Egiari omenaldia Katalunian. Aholkularitza historikoa: Aterpe: ekitaldia Artxandan

Argitalpenen kontrola:

- Hainbat egile: "Álava sarea, 1936 – 1947. Ekinez osatutako elkartasun sarea - Red solidaria y de acción"

Solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldi eta hedabideetako parte-hartzea (11)

DATA	JARDUERA/SAIOA	HIZLARIA
2018/01/02	Irrati-saioa Bizkaia irratiari, astearteko, 10:30etatik 11:00etara (ggb. Ekiana arte) eta urriaren 2tik aurrera	Goigana, Iñaki
2018/01/15	Elkarrizketaren grabazioa, Ekonomia Itunari buruzko dokumentala dela eta	Goigana, Iñaki
2018/03/22	Elkarrizketa Onda vasca irratiarentzat, Habana lurruntziari buruz	Guezala, Luis de
2018/04/19	Parte-hartzea II. errepublikari buruzko eztabaida-saioan, Tele 7 telebistan	Guezala, Luis de
2018/05/05	Álava sarearen erakusketa Gasteizen	Goigana, Iñaki
2018/05/17	Gerra Zibilari buruzko hitzaldia Barakaldon	Guezala, Luis de
2018/06/29	Álava sarearen erakusketa Elizondon	Goigana, Iñaki
2018/08/10	Historian zehar, Amerikatik inportatu ziren produktuei buruzko dokumentalaren gaineko grabazioa	Goigana, Iñaki
2018/10/03	Memoria historikoari buruzko hitzaldia Sondikan	Goigana, Iñaki
2018/10/12	Bidaia Kataluniara: Vicente Egiari omenaldia, urriaren 12-14	Goigana, Iñaki

DATA	JARDUERA/SAIOA	HIZLARIA
2018/10/19	Faxistei buruzko elkarriketaren grabazioa agiritegian, telebistako "360 grados" saioan emateko	Guezala, Luis de
2018/11/05	Elkarriketa Radio Euskadin, emakumeek 1934ko hauteskundeetan izan zuten parte-hartzeari buruz	Guezala, Luis de

7.4 ■ NORBANAKOEN DOHAINTZAK

2018ko ekitaldiaren barruan, **60** pertsonak edo erakundek egin dituzte dohaintzak Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian. Aipatutako ekitaldian **31** emaille berri izan dira. Bestetik, azpimarratzekoa da Iñaki Anasagastik egindako dohaintza ugariak. Hala, 2018ko abenduaren 31ra arte, **1.492** dohaintza jaso dira.

2018ko ekitaldian, agiritegiko dohaintza-emailleak ondokoak izan dira:

Dohaintza-emailleak	Funtsa	Data
Abio, Juan María	Ángel Abio eta Manuel Soria (Frantzia herbestaratutako umea)	2018/07/24
Acasuso, Jasone	Jesús Ariño Maruri	2018/01/15
Alda, Javier	Doroteo Ziaurritz	2018/03/21
Allende, Paco	Arabako funtsen liburutegia eta dokumentazioa	2018/07/17
Anasagasti, Iñaki	AGiritegi pertsonala: EAJ-PNV, <i>Euzkadi</i> aldizkaria, hemeroteka, liburutegia, argazkiak eta ikus-entzunezkoak	2018/12/21
Aranzadi Elkartea	Liburutegia	2018/12/27
Arejula, Idoia	1977-1985 urteetako filmak	2018/10/31
Arrizabalaga, Aritz	Agiritegiko dokumentazioa (1936-1937)	2018/01/31
Astarloa, Nekane	Enrique Astarloa (argazkiak, lekukotasunak...)	2018/10/09
Atela, Joseba	A familiaren dokumentazioa	2018/08/14
Atutxa, Juan Mari	Agiritegiko dokumentazioa, liburuak eta museoa	2018/07/19
Bas, Maite	Liburutegia, agiritegia, argazkiak eta museoa (zutoihala)	2018/08/14
Bastida, Jesús	Agiritegiko dokumentazioa	2018/11/25
Berriozabal, Roman	Arabako mugimenduaren berripapera (1960)	2018/06/05
Bilbao España, Luis María	Silvino España Palazón (heriotza-adierazpenaren kopia, 1937)	2018/09/11
Bizkaï Buru Batzar	Alderdi eguneko irudiak Aralarren, 1977an	2018/01/19
Cobo, Aitor	Liburutegia	2018/05/14
Deia	Arabako lurraldeko DEIA agiritegia	2018/06/13
Elizalde, Isabel	Agiritegiko dokumentuak eta Red Comet dominak (1945)	2018/09/27
Etxebarria, Mikel	<i>Muga</i> eta <i>Alderdi</i> aldizkariak, Bizkaiko EAJ-PNV alderdiaren estatutuak (1979koak, 1981ean berretsitakoak),	2018/05/04
Etxebarria, Jose M.	EAJ-PNV alderdiaren Kubako ordezkartzaren dokumentazioa, XX. mendeko lehen hamarkada)	2018/11/19
Fresnedo, Miren	Agiritegiko dokumentazioa: Fidel Fresnedo	2018/03/15
Fuentes, Jon	Liburutegia	2018/05/21

Fundació Josep Irla	Liburutegia eta hemeroteka	2018/11/21
Gaintza, Luis Angel	Hemeroteka, liburutegia eta agiritegia	2018/11/27
Gandariasbeitia, Esti	Gerra Zibileko kronikak (Ramón Olazabal)	2018/02/27
Garamendi, Maite	Liburutegia eta hemeroteka	2018/03/09
García Uribe, Iñaki	Museoko materialak eta argitalpenak	2018/06/20
Goikoetxea, Joseba	Ikus-entzunezkoak: 1977-1978ko filmak (Basauri, Bermeo eta Bakioko batzokien inaugurazioa, 77 eta 78ko Alderdi eguna)	2018/03/07
Gorostiaga, M ^a Teresa	Liburutegia eta Luis Urrutiaren hemeroteka	2018/10/03
Guzmán, Tomás	Liburutegia eta museoko materialak	2018/03/22
Irazabal, Luis	Sabinoren koadroa eta liburuak	2018/07/16
Irizar, José M ^a	Liburutegia	2018/06/12
Iturbe, Andoni	Liburutegia	2018/07/10
J. Aberasturi, Juan Carlos	Agiritegiko dokumentazioa (Ramón Agesta)	2018/05/04
Laria, Jose Antonio	Agiritegiko dokumentazioa (Gabriel Laria Palacio)	2018/01/05
Larrañaga, Mikel	Liburutegia	2018/10/30
Magunazelaia, Mikel	EAJ-PNV alderdiaren agiritegiko dokumentazioa (Forua)	2018/02/26
Mariscal, Ana	Eduardo Landeta agiritegiko dokumentazioa (XIX eta XX. mendeak)	2018/12/18
Miñaur, Itziar	Aldizkariak eta kartelak	2018/11/29
Murgoitio, Enrique	Liburutegia	2018/01/23
Olariaga, Martín	Liburutegia	2018/01/30
Pablo, Santiago de	Liburutegia	2018/05/22
Pérez, Rosa M ^a	Fructuoso Pérez Arrospideren dokumentazioa	2018/10/30
Pérez Maza, Iván	Agiritegiko dokumentazioa: liburuxkak, eskuorri politikoak	2018/02/06
Piedra, Gabriel	Hemeroteka	2018/04/12
Quevedo, Javier	Agiritegiko dokumentazioa	2018/02/14
Quintana, Xosé Ramón	Liburutegia	2018/06/18
Rentería, Martín	Iñaki de Renteríaren agiritegia (dokumentazioa)	2018/01/25
Rodríguez, David	Hemeroteka	2018/02/01
Ruiz, Iñaki	Agiritegiko dokumentazioa (María Egaña)	2018/06/15
Sagarna, Gorka	Liburuak eta Argentinako serieko euskal argitalpenak	2018/09/06
San Sebastián, Koldo	Liburutegia	2018/10/11
Sota, Ramón De La	Serieko argitalpenak eta koadroak	201/03/27
Taracena, Arturo	Liburutegia	2018/06/28
Tejero, José Angel	Liburutegia (Francok Bilbo bisitatu zueneko)	2018/01/19

Zamalloa, Josu	Ikus-entzunezkoa	2018/05/07
Ziarsolo, Jon	Hemeroteka eta museoko materialak	2018/01/16
Zubizarreta, Imanol	Jose Cruz de Zubizarreta Inchausti agiritegia	2018/04/03
Zurimendi, Ramón	Hemeroteka	2018/05/07

7.5 ■ IKERTZAILEAK

2018an, **76** ikertzailek aztertu dituzte gure agiri-funtsak agiritegian bertan (aurreko urtean baino % 10 gehiagok).

Hona hemen ikertzaileon izenak eta ikergaiak:

Abizenak	Izena	Ikergaia
Acasuso Ariño	Miren Jasone	Euskal abertzaletasuna Zallan
Agirre Arrizabalaga	Patxi	Manuel Irujo, erlijiotasuna haren ibilbide politikoan
Almeida Díez	Adrian	Gazte abertzaleak (Euskadin eta Alemanian) 60ko hamarkadan, erkaketa / Eusko Ikasle Alkartasuna (EIA)
Almorza Arrieta	Karlos	Trukeak (Irujoren bulegoa)
Altonaga Begoña	Bakarne	Euskal dantzak, XVII-XIX. mendeak
Altzibar Aretxabaleta	Xabier	Euskarazko kazetari eta idazleak gerran eta gerraostean
Amuchategui Ateca	Estibalitz Miren	Kepa, Gaizka eta Pedro Amuchategui Celaya gerran eta gerraostean
Anasagasti	Iñaki	Victoria Kent
Apraiz Zallo	Juan Antonio	Euskal arrantzaleak, atunontziak.
Arana Loroño	J. Sabin	Larrabetzuko memoria historikoa
Arana Pellitero	Nagore	Hiriko gizarte-mugimenduak eta demokraziarako trantsizioa Espainian: Madril, Bartzelona eta Bilbo (1964-1982)
Arana Rivera	Ruben Estanislao	Peruko euskaldunen jatorria
Arrieta Alberdi	Leyre	Jacques MARITAIN; Francisco Javier de LANDABURU
Artabe Irusta	Jon	Elizaren gizarte-dotrina (Arizmendiarieta, etc.)
Arzamendi Sesé	Arantxa	Eresoinka; José María Lasarte
Basarrate González	Iñigo	Ramón Sota Llano: etxea, Ingalaterrarekiko harremanak...
Bilbao Barrena	Jesús María (Haritz semearen izenean)	Umeen koloniak Katalunian, 1937-39
Cabanellas Benito	Jorge	Miqueles de Gipuzkoako mikeleteak
Castañeira	Rosa	Alderdi egunetako tonbola
Cullen	Niall	Euskal abertzaletasunaren eta Irlandako nazionalismoaren arteko harremanak

Dahech	Samya	Emakumeen arteko gutunak frankismoaren aurkako borrokan / Bizkaiko ondare jardunaldiak (hitzaldia Lekeition)
Díez Urrutia	Aitor	Matikoko toponimia
Estornés Ibargüen	César	Andrés Fernández Piñerua (kargudun militar gorena Garellanon)
Etxebarria Orue	Jon	Algortako batzokiaren historia; Kastrexanako batzokiaren historia
Fairbanks	Joy	Mugimendu abertzalearen historia
Garamendi Vazquez	Gaizka	1937 Basque Children in Great Britain
Garrido Ruiz	Begoña	Euskal emakumea Gerraz Zibilaren ostean, genero-ikuspegitik aztertuta
Garza	José	Mario Musatadi, ANVren sortzailea (aititea)
Goitia Bilbao	Zuriñe	Bakioko memoria historikoa (1936-1945): Gerra Zibila eta gerraostea.
González Sánchez	Juan José	Bizkaio Diputazioaren arte-lehiaketak 1879tik aurrera
Gounot	André	Euzkadi futbol-taldea
Hagio	Sho	Euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko hedapena: Andoni Urrestarazu ("UMANDI")
Henkevoss	Malte	Athletic Cluben historia, 1898 - 1923 eta haren esangura euskal identitatean
Herrero Acosta	Xabier	Hegazkinen aurkako babeslekuak
Hervalejo Sánchez	Pedro Álvaro	Euskal abertzaletasunaren eta nazionalismo katalanaren arteko erkaketa (1930-1952)
Ibarzabal Aramberri	Eugenio	Juan Ajuriaguerra
Iruretagoiena Alberdi	Leire	Gerra Zibileko eta frankismoaren hasierako errepresioa Deban, Mutrikun eta Zumaian.
Khris Maansri	Yasmine	ENBATA egunkaria, abertzaletasunaren bultzagarri Iparraldean
Landaburu Illarramendi	Ander	Xabier Landaburu
Lizarazu Pérez	Aitor	UGT 8 batailoia
López Díez	Ander	Ignacio Zuloaga
Magunazelaia Pinaga	Mikel	Emakume Abertzale Batza (EAB) Foruan
Majuelo Gil	Emilio	Euzkadi egunkaria
Martínez Rueda	Fernando	Telesforo Monzón
Masip Arrigui	Claudio	Hauteskunde-araudi nazionala (EAJ-PNV)
Mayor López	Gorka	Euskara Uribe Kostan (gerra aurretik)
McCreanor	Kyle	Euskadi eta Irlandaren arteko harremanak (Tesia: Nationalism in contact: Ireland and the

		Basque Country, 1895-1937)
Miyar Atutxa	Asier	Ixaka eta Benito Atutxa Barrenetxea
Mujika Goñi	Amaia	José Arrue
Niebel Hoever	Ingo	Agirreren irteera Belgikatik eta sarrera Alemanian.
Núñez Iñiguez	Iñaki	José M ^a Iñiguez Otegi
Olaetxea Ocio	Fco. Javier	Segundo Olaetxea Garay
Ontoso Soto	Pedro	Indarkeria politikoa Euskadin eta Elizaren jarrera
Orue Ayesta	Carmelo	Aita-osaben datuak (Abellaneda eta Padura batailoietako gudariak)
Pablo Contreras	Santiago	ETAren jatorria
Pérez Recalde	Cristina	Bizkaiko emakumea, Aranaren arabera
Pérez Urraza	Karmele	Álava sarea - Tere Verdes eta EAB
Piedrabuena Fernández	Sebastián	Emakumeen egoera Mungian, Gerra Zibilean eta gerraostean
Prieto Urrutia	Joseba Iñaki	Bakioko memoria historikoa (1936-1945): Gerra Zibila eta gerraostea.
Pulido Azpiroz	Alejandro	Lehen Mundu Gerra
Ràfols Cabrisses	Josep Maria	Manuel Irurita Almandoz gotzaina
Rodríguez Oñatibia	Amaia	Errenteriako memoria historikoa (1936-1945)
Rotaetxe Gallano	Mikel	1934ko urria
Ruiz de Gordejuela Agirre	Iñaki eta Eduardo	Familiaren historia politikoa
Sanguinetti Arana	Piero	Arana abizenaren jatorria
Sodupe Corcuera	Kepa	Euskal abertzaletasuna erbestealdian – Europako mugimendua
Tabernilla Aragón	Guillermo	Gerra Zibila (Bizkaiko erasoak)
Ugarte Cortabarría	Plácido	Maruriko oroimen historikoa
Ugarte Muñoz	Anton	Euskaltzaindia, 1941-1952
Vall Segura	Josep	Katalunia-Euskadi, Galeuzca, Esquerra Republicana...
Vallejo Itsaso	Asier	José Vallejo Jaca, mikellete gipuzkoarra
Van Der Leeuw	Barbara	Nazionalismo erkatuak eta heriotzaren politikak
Vicandi Galarza	José Antonio	Abellaneda batailoia
Vuocolo	Francesco	Euskal abertzaletasuna ETAren 2011ko suetenaren ostean
Zurimendi Abalde	Ramon	José Fodel Otaño

7.6 ■ INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA: WEBGUNEAK-SARE SOZIALAK

- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen informazioa aldiro-aldiro eguneratzen dugu, gure agiri-funtsetan gordeta dauden liburu, aldizkari eta egunkariei nahiz euskal historiari buruz argitaratzen den informazioa jasota.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak zabaltzen ditugu sare sozialetan (Facebook, Twitter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzen dugu, urtero antolatzen ditugun jardueren berri harpidedunei emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea da helburua.
- Zuzeneko ekitaldiak eskaintzen ditugu, *streaming* bidez; gure egoitzako Agirre lehendakaria aretoan garatzen diren jardueren bideo-grabazioak gordetzen ditugu (hitzaldiak, mintegiak, liburuen aurkezpena...) eta Internetera igotzen ditugu nahi duenak ikusteko webgunetik edo YouTubeetik.
- Webguneen kudeaketa: Fundazioarena, Agirre lehendakariarena, Sabin Etxearena eta Sabino Arana Goirirena.

8.1. Urteko balantzea

2018ko ekitaldian ere, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak gertaera historikoetan parte hartu zuten pertsonen ahozko lekukotasunak jaso ditu, horien guztien kontakizuna funtsezkoa baita gure benetako historia berreskuratzen joateko.

Beste alde batetik, Museoaren gainerako jarduerak bazter utzi gabe, gogotik jardun dugu argazki-funtsa katalogatzen, dekorazio-arteen eta arte grafikoen funtsak berrantolatzen eta dohaintza berriak erregistratzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen.

Aurreko urteetan bezala, UPV/EHUko Gizarte Zientzien eta Komunikazio eta Letren eta Arte Ederren fakultatekoa fakultateetako hogeitabat ikasle izan dugu gurean; bai eta Arte Garaikidearen kontserbazio eta erakusketaren Masterrekoak ere. Horiek guztiek 2.840 ordu baino gehiago eman dute funtsotako irudien digitalizazioa, deskribapen teknikoa eta tratamendua gauzatzeko.

Azkenik, behean ageri diren funtsak antolatzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen jarraitu dugu lanean:

Argazki-funtsa: 2018an jasotako 2.730 argazki baino gehiago erregistratu, katalogatu eta “Sabino Arana Fundazioa” deritzon moldea txertatu diegu irudiei:

- Norbanakoek egindako dohaintzen funtsetan gordetako argazkiak erregistratzea, katalogatzea, digitalizatzea eta irudiei moldea txertatzea.
- Erregistratutako irudien deskribapen fisikoa egitea eta kontrastea hobetzea.
- Identifikatzaile, egungo egoera, kopien kopuru eta beste ezaugarri batzuk inbentarioan jasotzea.
- Irudiak indexatzea, zeini dagokion testu-fitxaren arabera.
- Tamaina, egungo egoera eta abarren arabera, irudiak euskarri egokietan jartzea, argazki-albumetan gordeta eta hainbat tamainatako zorroetan –pH neutrodunak eta argazkiari egokitutakoak– sartuta.

Arte Grafikoak | Kartelen Atala: eranskailuen bildumarekin egin bezala, inbentarioa lantzen jarraitu dugu, sarrera berriak txertatu dira eta horiek erregistratu, argazki digitalak erabiliz.

Atal honetan, Arte Ederren Fakultateko eta Arte Garaikidearen kontserbazio eta erakusketaren Masterreko praktiketako ikasleek jardun dute lanean. Guztira, 200 erregistrotik gora jaso dituzte inbentarioan aipatutako ikasleok eta batzuk-batzuk zaharberritu dituzte.

Arte Grafikoak | Eranskailuen Atala: erregistro berriak katalogatzen jarraitu dugu, Arte Ederren eta Letren fakultateetako ikasleek egindako lanari esker. Horrela, 1.300 erregistrotik gora katalogatu eta jaso ditugu inbentarioan.

Dekorazio Arteak: 1.050 objektu baino gehiago berrantolatu eta berriro kokatu ditugu. Arte Ederren eta Historia fakultateetako praktiketako ikasleek jardun dute zeregin horietan. Gainera, gai berriak erregistratu eta katalogatu dira

Beste alde batetik, Masterreko ikasleek Museoan gordetako pieza bat eraberritu dute. Pieza hori zikin eta higatuta zegoen eta, hortaz, gogotik garbitu eta eraberritu dute ikasleek, baldin zeukan margoa berriro ere emanda.

Ehun-funtsa: 2018ko ekitaldiaren barruan, gure erakundera heldu diren ale berriak aztertu, inbentarioan jaso eta katalogatu dira.

Dagoeneko deskribatuta eta inbentarioan jasota dauden funtsei dagokienez, esan behar da, 2018ko ekitaldian, Euskal Abertzaletasunaren Museoak 200 bat kontsultari erantzun diela eta argazki-funtsean jasotako 300 irudi baino gehiago baliatu direla Facebook eta Instagram sare sozialetan eta DEIA egunkariak jorratzen duen “Historias de los vascos” sailean argitaratzeko.

Gaur egun, lanean dihardugu 2018an jasotako dohaintza esanguratsuak inbentarioan jasotzen eta euskarri egokietan paratzen. Ildo horretan, nabarmendu behar dira funts guztietan (argazki-funtsa, ehun-funtsa, dekorazio-arten funtsa...) jasotako gaiak.

Aldi baterako erakusketei gagozkiela, 350 elementu baino gehiago laga ditugu gai askotariko erakusketetan ipintzeko, hainbat erakunderekin elkarlanean:

- **Bizkaiko Batzar Nagusiak**, “*Enkarterri 1937. Gerra Zibilaren azken hilabeteak Euskadin*” izeneko erakusketan.
- **Bilboko Arte Ederren Museoa**, “*Aurelio Arteta. Irakuri Léase Euzkadi*” izeneko erakusketan.
- **Baionako Euskal Museoa**, “*Gaur 1966. L’art basque sous le franquisme, résistance et Avant-Garde*” izeneko erakusketan.

Bestetik, hainbat pieza laga dizkiegu ondoko museo eta erakundeei, euren erakusketa iraunkorretan jartzeko:

- Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
- Euskal Poliziaren Museoa
- Museo de l' Exili
- Eusko Legebiltzarra

Beste alde batetik, 2018ko ekitaldian, gure eskaintza didaktikoa handitu da eta hamabi motatako tailer didaktikoak antolatu ditugu, batetik, Museoen Egunaren leloa jorratzeko, bestetik, sormena lantzeko eta, azkenik, euskararen jatorriaz jarduteko. Tailerren hartzaileak adin askotako ikasleak izan dira.

8.2 Kontsultak eta lankidetzak

2018ko ekitaldian, Euskal Abertzaletasunaren Museoak 250 kontsulta baino gehiago jaso ditu eta 2.000tik gora irudi igorri dizkie ondoko guztiei:

- a) Hedabideak: *DEIA; EITB; El Correo; El diario Norte; Eusko Lurra; La Sexta TV; Mugalari aldizkaria...*
- b) Erakundeak: *Euskadiko Agiritegi Historikoa; Erraketisten elkarte; Athletic Club; Amurrio, Bilbo, Eibar, Elorrio, Erandio, Ereño, Galdakao, Igorre eta Mundakako udalak; Bilbao 700; CIHMA; Diputatuen Kongresua; Gipuzkoako Foru Aldundia; Enkarterriko Mankomunitatea; Limako Euzko Etxea; Mario Onaindia Fundazioa; Galdakaoko Gogora elkarte; Gerediaga Elkarte; Eusko Jaurilaritza; Bruselako ordezkari; Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa; Gogora; Gorbeialde; Bizkaiko Batzar Nagusiak; BOS; Bilboko Arte Ederren Museoa; Enkarterriko Museoa; Gernikako Turismo Bulegoa; Orbela; Eusko Legebiltzarra; Euzko Alderdi Jeltzalea; Segurako antzokia; Txakolingunea; Deustuko Unibertsitatea; Euskal Herriko Unibertsitatea...*
- c) Argitaletxeak: *Pamiela; Prensa Ibérica; Santillana...*
- d) Ekoiztetxeak: *Baleuko; NHK Motoko; Pacay Kulturmedia; Productora Manuel Campo Vidal...*

e) Ikertzaileak eta norbanakoak.

8.3 Aldi baterako erakusketak eta maileguak

250 gauzaki eta material baino gehiago laga edo maileguan utzi ditugu ondoko erakusketetan erabiltzeko:

Bilboko Arte Ederren Museoa, “AURELIO ARTETA. IRAKURI-LÉASE EUZKADI”
izeneko erakusketan. 2017ko urriaren 10etik 2018ko otsailaren 20ra,
museoko aretoetan.

Enkarterriko Museoa eta Bizkaiko Batzar Nagusiak,
“Enkarterri 1937. Gerra Zibilaren azken hilabeteak
Euskadin”. 2017ko ekainaren 22tik 2018ko
martxoaren 31ra, Enkarterriko museoan.

Txakolingunea. Bakio, “Berriro inoiz ez.
Gerrako irudiak” izeneko erakusketan.
2018ko urtarrilaren 7tik apirilaren 15era.

Arabako Foru Aldundia, “Álava sarea. Emakume ikusezinak.
Elkartasuna eta espioitza 1936-1947” izeneko erakusketan.
2018ko maiatzaren 5etik 31ra, Vital Fundazioaren erakusketa-aretoan.

Baionako Euskal Museoa,
“Gaur 1966. *L’art basque sous le franquisme, résistance
et Avant-Garde*” izeneko erakusketan.
2018ko maiatzaren 21etik azaroaren 16ra.

Baztango Udala, “Álava sarea. Emakume ikusezinak.
Elkartasuna eta espioitza 1936-1947” izeneko erakusketan.
2018ko ekainaren 29tik uztailaren 19ra, Arizkunenea kultura-etxean.

Algortako EAJ-PNV de Algorta,
“Algortako batzokiaren berreskurapenaren
40. urteurrena” izeneko erakusketan.
2018ko uztailaren 10etik 23ra, Algortako batzokian.

Donostiako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia, “Álava sarea. Emakume ikusezinak.

Elkartasuna eta espioitza 1936-1947” izeneko erakusketan.

2018ko irailaren 6tik 26ra, Aiete kultur etxeko erakusketa-aretoan.

Sondikako Udala, “Berriro inoiz ez.

Gerrako irudiak 1936-1939” izeneko erakusketan.

2018ko irailaren 19tik urriaren 7ra, Sondikako kultura-etxean.

GOGORA, Oroimenaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua,

“Álava sarea. Emakume ikusezinak. Elkartasuna eta espioitza 1936-1947” izeneko erakusketan.

2018ko urriaren 5etik 30era, Bilboko egoitzan.

Zamudioko EAJ-PNV, “Zamudioko Lehenengo Batzokiak.

111 urte (1907-2018)” izeneko erakusketan. 2018ko

azaroaren 10etik 30era,

Zamudioko batzokian.

Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala,

“Álava sarea. Emakume ikusezinak. Elkartasuna eta espioitza 1936-1947” izeneko erakusketan.

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 16ra, Kondestablearen jauregian.

NORBANAKOEN DOHAINTZAK

2018ko ekitaldian, besteak beste, 2.000 pieza eta 300 irudi baino gehiago (horietako asko argitaratu gabekoak izan dira eta batzuk-batzuk negatiboan jaso ditugu; horregatik, positibizatu eta landu behar izan ditugu) jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Museoan, hogeita hamar bat norbanakok eta erakundek egindako dohaintzei esker.

Sabino Arana Sariak Sabino Aranaren jaiotza gogoratzeko antolatzen dira. Ekitaldi horren 29. edizioa urtarrilaren 28an egin zen eta honako hauek jaso zuten saria: Gerediaga Elkartea; Ramón Barea aktorea, zuzendaria, dramagilea eta ekoizlea; Kooperera-Gizarte eta Ingurumen Berrikuntza; Abel Barriola pilotaria; eta EZ beti da EZ! / ¡NO es NO! “garrasi kolektiboa”.

Musika-ekitaldi bikain batek amaiera eman zion Sabino Arana Sarien 2017ko ekitaldiari. Fernando Bernuések zuzendu zuen ikuskizuna, Fernando Velázquezek egin zuen musika beren-beregi ekitaldi horretarako eta Leire Bilbaok prestatu zituen hitzak. Euskeria abesbatzak eta Bilboko Koral Elkarteko Haurren koruak abestu zuten eta Mireia Gabilondo aktorea nahiz Dantzaz konpainiako dantzariak ere aritu ziren ekitaldian.



Musika-ikuskizun hori izan zen ekitaldiaren unerik gogoangarrienetakoa. Izan ere, ikuskizun horren bidez, Fundazioak euskal lurraldeko bazter guztietan ozen entzuten den EZ beti da EZ! / ¡NO es NO! garrasi kolektiboa aintzatetsi nahi izan zuen. “Garrasi horrek, alde batetik, indarkeria sexista edo genero-indarkeria pairatu duten emakumeen ahots izutu eta ia beti isildua daroa; bestetik, gizartearen gaitz larri horren aurkako borroka sutsuan ibili diren eta egun badabiltzan elkarte, antolakunde, herri-ekimen eta erakundeen ahots arduratsu eta ekintzailea; eta azkenik, euskal gizarte osoaren ahots tinko eta kementsua, indarkeria-mota guztiak errotik desagerrarazteko kontzientziatze irmo eta gero eta konpromiso sendoagoa daukan ahotsa”.

Iñigo Urkullu lehendakariak ekitaldiaren buru jardun zuela, Sabino Arana Fundazioak gizartearekiko konpromisoa, talentua eta ibilbide profesionala aitortu zien edizio horretako saridunei.

Sabino Arana Fundazioko lehendakariak, Juan M^a Atutxak, eta zuzendariak, Irune Zuluagak, saridunak hartu zituzten banan-banan.

29. edizioaren bost saridunen artean (dagoeneko, 165 pertsonak eta erakundek jaso dute saria Sabino Arana Sarien historian; 2017ko edizioan, indarkeria sexistaren eta genero-indarkeriaren aurkako borrokan dabiltzan antolakunde eta herri erakundeen izenean, saria jaso duten Mirari eta Unai neska-mutikoak batu behar zaizkio aurrekoei) Kooperera-Ingurumen eta Gizarte Berrikuntza izan genuen lehenengoa oholtza gainean. Bertako presidenteak, Oskar Pérez jaunak, eta zuzendari kudeatzaileak, Javier Mariño jaunak, saria jaso zuten “kooperatibak 25 urtetan baino denbora luzeagoan gizarte-bazterkeriako egoera pairatzen edo pairatzeko arriskua duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko eta ingurumena zaintzeko egin duten apustu garbia” aitortzearren. Horren ondotik, Ramón Bareak, azken lau hamarkadetako euskal zine eta antzerkiari lotutako pertsona esanguratsuenetako batek, Fundazioaren aintzatespena eta ikusleen txalo-zaparrada beroa jaso zituen. Arriagako agertokira igo zen hurrengoa Gerediaga Elkarteko burua, Nerea Mujika andrea, izan zen. 52 urteko ibilbidean barrena, Gerediaga Elkartek Durangoko eta Durangaldeko historia-, arte-, kultura- eta etonografia-ondarea ikertzeko, babesteko eta zabaltzeko lan izugarria eta eredugarria egin du, bai eta oroimen historikoa berreskuratzea ere, eginkizun horretan aurrendari izan zela. Geroago, Abel Barriola pilotaria igo zen oholtzara. Barriolak esku pilotako hiru txapelketa nagusien (eskuz banakakoa, eskuz binakakoa eta lau t’erdikoa) irabazlea dugu eta, zalantzarik gabe, kirol horretan hasten diren neska-mutilentzako eredu jatorra, jokalekuaren barruan nahiz kanpoan denok maite eta errespetatzen baitugu Abel.

Azkenik, Euskadi osoan ozen entzuten den Ez beti da Ez! musika-emanaldia Mirarik eta Unaik jaso zuten sariaren sarrera bikaina izan zen. Sari hori euskal gizarte osoarentzat izan zenez, otsailaren 19an, Mirarik eta Unaik EUDELera eramane zuten saria. Izan ere, EUDEL dugu indarkeria sexista eta genero indarkeriaren aurkako borrokan egunero-egunero aritzen diren elkarte, antolakunde, herritar eta herri-erakundeak dauden euskal udalen ordezkaria.

Aiert Arieta-Araunabeña kazetariak aurkeztu eta gidatu zuen ekitaldia eta Ane Ibarra (biolin-jotzailea) eta Nora López (biolontxelo-jotzailea) musikariek osatutako Kresala soka-bikoteak girotu zuen, hiru lan bikain jota: Franz Anton Hoffmeisterren Do Maiorreko *Allegro*, Opus 6, 1. zk.; Johann Georg Albrechtsbergen Sol Maiorreko *Adagio*, 5. zk.; eta Ludwig van Beethovenen Do Maiorreko *Allegro*, opus 27, 1. zk.

Eusko Jaurlaritzako lehendakari eta sailburu jeltzaleez gain, politika, kultura, ekonomia eta gizarte-esparruetako pertsona ospetsu ugari izan ziren ekitaldian, besteak beste, Eusko Legebiltzarreko burua, Bakartxo Tejeria; Bizkaiko eta Arabako ahaldun nagusiak, Unai Rementeria eta Ramiro González; EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidentea, Andoni Ortuzar; edo Deustuko Unibertsitateko errektorea, José María Guibert.

Sabino Arana Fundazioaren izaera anitza dela eta, fundazioko ordezkariak hainbat ekitalditan parte hartu dute beste erakunde eta antolakunde batzuetako ordezkariekin batera (fundazioaren jardueraren ziozkoak ez dira kontuan hartu atal honetan).

2018ko urtean, ondoko ekitaldietan parte hartu dugu:

- Otsailaren 26an, EUDelen egoitzan, Mirarik eta Unaik, urtarrilaren 28an, Arriaga antzokian, 2017ko ekitaldiko Sabino Arana Saria “EZ beti da EZ! / ¡NO es NO!” aldarrikapenaren izenean jaso zuten gazteek, EUDelen egoitzan, Bilbon, utzi zuten saria, aurretiaz iragarri bezala.
- Ohi denez, Euskadin dauden Galiziako Etxeen Irmandade deritzon antolakundearekin elkarlanean, martxoaren 15ean, Alfonso R. Castelao idazle, marrazkigile eta nazionalismo galziarraren sortzaileari omenaldia egin genion. Ekitaldi horretan, lore-eskaintza egin zen Galiziako politikariari eskainitako monumentuaren aurrean, Europa parkean, Bilboko Txurdinaga auzoan.
- Egun horretan bertan, Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldean aritu ziren gudarientzako omenaldia egi genien, Matxitxako elkartearen eskutik.
- Apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena gogoratzeko ekitaldian parte hartu genuen.
- Maiatzaren 5ean, Álava sareko kideak omentzeko ekitaldian parte hartu genuen, Gasteizen.
- Ekainaren 17an, Gerra Zibileko gudari, miliziano eta emakumeak omentzeko ekitaldian parte hartu genuen Artxandako “Aterpe 1936 (La Huella)” izeneko eskulturaren aurrean.
- Urriaren 8an, Euzkadi Buru Batzarreko kideen bisita jaso genuen, SAFen 30. urteurrenaren karian.
- Urriaren 14an, Vicente Egia euskal komandantearen omenaldian parte hartu genuen, en la Pàndols mendilerroko (Tarragona) 705 kotan.
- El Pinell de Brai udalerriko alkate andre Eva Ampostak eta udalbatzak harrera egin ziguten udaletxean, Terres Altes de’l Ebre deitutako lurraldetik barrena egindako bidaian.
- Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatu ditugu, gure ume eta gazteek hobeto ezagut ditzaten gure historia eta bizi gareneko ingurunea.
- Beste ekitaldi batzuk.



Sabino Arana Fundazioak, oroimena berreskuratzeko Euskadiko nahiz Kataluniako elkarte eta antolakunde batzuekin batera, bidaia antolatu zuen urriaren 12tik 14ra Tarragonako Terres de l'Ebre eskualdera, **Vicente Egia Sagardui** komandante abertzalearen eta Ebroko gudan hil ziren euskal gudari eta miliziano guztien aldeko oroitzapenezko eta omenezko ekitaldian parte hartzeko, horien guztiaren heriotzaren 80. urteurrenean.

Ebroko fronteko hainbat leku esanguratsu bisitatu genituen, hala nola, 115 Eguneko Interpretazio Zentroa eta Espai Històric del Poble Vell, Corbera d'Ebre herrian; Campament del XV Cos d'Exèrcit, Espai Històric Les Deveses eta Espai Històric Memorial de Les Camposines, Fatarellan. Urriaren 14an, senideek, lagunek, erakundeetako ordezkariak eta oroimena berreskuratzeko Euskadiko nahiz Kataluniako elkarte eta antolakundeetako kideek oroitzapen eta omenezko ekitaldi batean parte hartu genuen, Pàndols mendilerroko 705 kotan, Pinell de Brai herrian.



Euskadin gerra galduta zegoela, Agirre lehendakariaren gobernuak gudari eta miliziano ugari mobilizatu zituen faxisten aurka borrokatzeko Kataluniako lurretan. Horietako bat izan genuen Vicente Egia gudaria, *Kirikiño* batailoiko komandantea eta, geroago, Errepublikako armadako 560. batailoiko komandantea, edo Gazte Sozialista Bateratuetako (gaztelaniaz, *Juventudes Socialistas Unificadas*, JSU) *Dragones* batailoiko euskal milizianoak, besteak beste, **Gerardo Ruiz de la Cuesta**, **Bernardo Gómez de Segura** eta **Bernardo López Alzega** arrasatearrak. Laurek ere Ebroko gudan galdu zuten bizia. Baliteke euskal herritar gehiago hil izan guda horretan, baina oraindik ere

ez dakigu. Beharbada, izen gehiago agertuko dira hurrengo ikerlanetan. Nolanahi ere den, Vicente Egia, Gerardo Ruiz de la Cuesta, Bernardo Gómez de Segura eta Bernardo López Alzegari egindako omenaldiaren ildoan, 1938. urtean lur horietan borrokan aritu eta bizia galdu zuten Euskadiko, Kataluniako eta Espainiako herritar guztiak ohoratu nahi izan ziren.

Ekitaldian, oroitzapenezko plaka bat jarri eta lore-eskaintza egin zen, *Biberoiaren Kinta* izenekoak Gerra Zibileko biktima guztien omenez altxatutako monumentuaren ondoan, eta bertan, ondokoek parte hartu zuten: El Pinell de Brai udaleko alkate **Eva Amposta** andreak; Bilboko Udaleko zinegotzi **Koldo Narbaiza**, Egia kide izan zeneko Abandoko batzokiaren ordezkaritzan; Sabino Arana Fundazioko zuzendaria, **Irene Zuluaga**; Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoko zuzendari eta ikertzaile **Aitor Miñambres**; Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Saileko kide eta Burdin Hesia Ugaon Elkarteko kide **Iñaki García Uribe**; Bizkaiko Batzar Nagusietako Eusko Abertzaleak taldeko bozeroale **Jon Andoni Atutxa**; **Iñaki Anasagasti** senatari ohia; Gerra Zibilean eta Bigarren Mundu Gerran faxismoaren aurkako borrokan aritutako gudari eta milizianoei erretratu asko eta asko egindako **Mauro Saravia** argazkilari eusko-txiletarra; Vicente Egiaren senideak, hala nola **Garbiñe Guerrero** eta **Ander Egia** biloba.



Oroigarria euskaraz, katalanez, ingelesez eta gaztelaniaz idatzita dago eta hauxe dio: Vicente Egia Sagardui euskal komandantearen heriotzaren 80. urteurrenean, Ebroko lur hauetan askatasunaren eta demokraziaren alde borrokatu eta bizia galdu zuten gudari eta miliziar guztiei esker onez. Serra de Pàndols mendilerroko 705 kotan, 2018ko urriaren 14an.

Amaitzeko, handik hurreko Camposineseko oroimen-etxea bisitatu zuten, bertan hil baitzen Vicente Egia.

Bidaian, Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoko zuzendariak, Aitor Miñambresen Vicente Egiari eta Gerra Zibilean egindakoei buruzko hitzaldia eskaini zuen.



- Mezu@: harpidedun berriak erakartzea argitalpena sendotzeko.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzea hainbat sare sozialetan (Facebook, Twitter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Bideoak gordetzea gure webgunetik ikusi ahal izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratzea, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Webguneak eguneratzea: Fundazioarena, Agirre lehendakaria, Sabin Etxea eta SAG150 (Sabino Arana).
- Artikuluak idaztea DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte-hartzea.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte-hartzea.

Memoria historikoa berreskuratzea Sabino Arana Fundazioaren bereizgarri behinenetakoa da eta, hain zuzen ere, horixe da gure Fundazioaren sorreraren helburuetako bat: oro har, herri honetako oroimen historikoa eta, bereziki, euskal abertzaletasunari lotutakoa, jagon, balioa eman eta gizarteratzea, etorkizun hobea lortzeko xedez.

Ikuspegi horretatik abiatuta, Sabino Arana Fundazioak hainbat jarduera antolatu ditu 2018an oroimenari lotutako jakintza zabaltzeko, honako programa honetan ardaztuta: “Oroimen Historikoa”. Programa horren baitan, oroimen historikoari buruzko mintegi bat eta hainbat tailer didaktiko eta ahozko historiari buruzkoak antolatuko dira, ahozko lekukotasunak bilduko dira, prentsako artikuluek idatziko dira; “Álava sarea: emakume ikusezinak, elkartasuna eta espioitza

(1936-1947)” erakusketa ibiltaria antolatuko da; Vicente Egia Sagardui milizietako kapitaina Ebroko frontearen hil zela, 80. urteurrenari lotutako hainbat jarduera; eta “BERRIRO INOIZ EZ! Gerrako irudiak (1936-1939)” erakusketa hainbat herritara eramango da.

Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea da fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Gure jarduera guztien zabalkundea Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan nahiz Euskal Herriko gainerako herrialdeetan garatzen da.

Bide horretan, Sabino Arana Fundazioak gizarte anitzaren aintzatespena eta babesa dauka, gizarte- nahiz politika-arloan. Egitasmo honetan bidelagun ditugun antolakunde, elkarte eta norbanakoen artean, ondokoak nabarmenduko ditugu: Euskaltzaindia, Euskadiko Agiritegi Historikoa, Zuzenbidearen Euskal Akademia, Aranzadi Zientzi Elkartea, udalak, Europar Demokraten Institutua (IED), Europako Alderdi Demokrata (PDE-EDP), epaile entzutetsuak, politikariak, irakasleak...

Beste alde batetik, esan beharra dago Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, alde batetik, gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko elementua delako eta, bestetik, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztietako hizkuntza ofiziala delako. Horregatik, bi hizkuntza ofizialak darabiltzagu Fundazioaren jarduera guztietan, barruko harremanetan (Patronatuaren batzarrak, jarduerak antolatzeko bilerak...) nahiz kanpoko harremanetan (bazkideentzako komunikazioak, hedabideentzako deiak, gure jardueretan parte hartzeko gonbidapenak...).

Mintegietan, batez beste, jakintza-arlo askotako berrogeita hamar bat adituk hartu ohi dute parte.

Fundazioak antolatutako erakusketei dagokienez, Álava sarearenak 4.500 bisitari inguru izan ditu Gasteizen, Elizondon, Donostian, Bilbon eta Iruñean. “Berriro inoiz ez! Gerrako irudiak, 1936-1939” erakusketak, berriz, ia mila bisitari izan ditu Bakion eta Sondikan.

Ehunka ikaslek parte hartu dute gure tailerretan, hain zuzen ere, ikastetxe hauetakoak: Zamudio LHI, Larreagaburuko ikastetxe publikoa, Uribarriko ikastetxe publikoa, Epaltzaren alargunaren ikastetxe publikoa, Artxandape ikastola, Larreagaburu ikastola, Tiboli eskola eta J. M. Sánchez Marcos ikastetxe publikoa.

Nahikoa zaila da DEIA egunkariaren “Historia de los vascos” sailean argitaratutako erreportajeen norainokoa ebaluatzea, baina aintzat hartu behar da 75.000 lagun inguruk irakurtzen dutela

egunero egunkaria eta, gainera, artikulua edizio digitalean ere eta Sabino Arana Fundazioaren sare sozialetan agertzen direla.

Aurreko guztiagatik, lortutako emaitzei erreparaturik, gure iritziz, arrakastaz bete ditugu hasierako helburuak.